

KULTURKRITIKA

» LIBURUA

Bizitzaren gatza eta piperra



Amaia Alvarez Uribe



Autoreak plazara

GARAZI ARRULA RUIZ
DANELE SARRIUGARTE
MOCHALES

Crowdfunding, 2015

2015eko udazkenean Garazi Arrula Ruizek eta Danele Sarriugarte Mochalesek *Autoreak plazara* eta *Itzultzaileak mintzo* liburuak plazaratu zituzten *crowdfunding* bati esker. Bertan, aurreko hiru urteetan elikatu zuten *Elearazi* blogeko uztaren hautaketa argitaratu dute, online hasitakoa paperean ipiniz eta proiektu horri amaiera emanez.

Lehen liburuan fikzioa eta ez-fikzioa atalak ditugu, blogeko “euskarara ekarriak” ataleko itzulpen batzuk, eta bigarren liburuan blogeko “hausnarketa” ataleko itzulpengintzaren inguruko elkarrizketa eta kronika batzuk. Jarraian lehenengo liburuari buruz arituko gara. Bi dira aipatu nahi ditudan honen ekarpenak: literaturarekikoa batetik eta feminismoa eta genero ikasketekikoa bestetik.

Euskal literatura XX. mendetik hona gero eta anitzagoa eta aberatsagoa dela esan daiteke, eta honetan itzulpenek egin duten lana aipagarria da. Badirudi euskal literaturaren irakurleen artean gutxi irakurtzen direla, eta irakurle taldeetan gutxi programatzen direla. Aukera emango bagenie beste kultura, bizi-pen eta kokapen batzuk ezagutuko genituzke eta “literatura unibertsala” ezagutzean “euskal literatura” beste begi batzuekin begiratu ahalko genuke. Ez da erakargarria?

Itzulpenon bidez autore eta lan batzuk ezagutzera ematea eskertu nahi diet *Elearazikoei*, eta haiekin, bizitzeko eta bizitzaz aritzeko beste modu batzuk. Testuotan suizidak, putak, drogazaleak, sorginak, kanibalak edo lesbianak guri hizketan jardungo dute, eta Europatik Ameriketara edo Afrikara salto egingo dugu. Batzuetan irakurtzen amaitze-

rakoan denboratxo bat hartu beharko dugu hitzok digeritzeko, beste batzuetan barre egingo dugu irakurri ahala, eta testu bakoitzak bere aztarna utziko digu, gu kolokan jarritz, espero gabeko galderak eginez.

Bestalde, euskarazko feminismoa eta genero ikasketetan egindako ekarpena eskertu nahiko nieke. EDO! argitaletxearen *Genero ariketak* lanean Virginie Despentes, Itziar Ziga, Beatriz Preciado, Lucas Platero eta Javier Saez ditugu euskaraz, eta UEUK plazaratutako *Diskurtsoak*, *eraikuntzak*, *gorputzak* liburuan Monique Wittig, Denise Riley, Elizabeth Grosz eta Anne Fausto-Sterling. *Elearaziren Autoreak plazaran* berriz, besteak beste Pedro Lemebel, Audre Lorde, Cherrie Moraga, Paco Vidarte eta Assata Shakur-en testu mamitsuak ditugu, edozein eskola feministarentzat luxuzko bibliografia euskaraz.

Literatura, itzulpena eta hausnarketa eskaintzen dizkigute blog eta liburuetan, ingelesek *food for thought* eta *think out the box* esango luketena. Irakurtzen jarraitzeko: Elearazi.eizie.eus. ■



Garazi
Arrula Ruiz
eta Danele
Sarriugarte
Mochales.